



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/06

EGUNA: 2025/07/23

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:30

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Jon Riaño Ojanguren.

Monica de Prado Paniagua.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Aritz Larrañaga Unanue.

Eduarne Aristi Careaga.

Jon Ander Urain de Jesus.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2025eko ekainaren 26an eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen , 2025eko ekainaren 26an eginiko osoko bilkuraren bileraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote zuen Alkatetza dekretuen harira.

Ez zen egon galdera edo iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Onartzea, hala badagokio, hiri izaerako lur sailen balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza aldaketa: Balio gaikuntza zehazteko urteko portzentajeak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauak, laugarren xedapen gehigarrian, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikuluan jasotako gehieneko koefizienteak aldatu zituen. Aldaketa horrek hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen udal ordenantza fiskaleko eranskinean jasotako koefizienteak ere eguneratzeko beharra sortu du, izan ere, bertan jasotzen diren koefiziente batzuk Foru Arauan jasotakoak baino handiagoak baitira.

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko uztailaren 14an egindako ohiko bileran, gaia aztertu zuen, eta hiri izaerako lur sailen balio gehikuntzaren gaineko zergaren udal ordenantza fiskaleko eranskinean jasotako koefizienteen aldaketa onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen hiri izaerako lur sailen balio gehikuntzaren gaineko zergaren udal ordenantza fiskaleko eranskinean jasotako koefizienteak horrela aldatzea:

<u>Sorraldia</u>	<u>Koefizientea</u>
Urtebetetik behera	0,14
Urte bat	0,13
2 urte	0,14
3 urte	0,14
4 urte	0,16
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08

<u>Sorraldia</u>	<u>Koefizientea</u>
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,09
15 urte	0,09
16 urte	0,10
17 urte	0,12
18 urte	0,16
19 urte	0,22
20 urte edo gehiago	0,35



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

4.- Onartzea, hala badagokio, IZENPE berezko bitarteko gisa aitortzea.

“Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA” (IZENPE) enpresaren estatutuen 1. artikuluan jasotakoari jarraituz IZENPE, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioen bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko da, eta bitarteko propioztat duten erakundeek lanak, zerbitzuak eta edozein jarduketa eta enkargu egiteko agindu ahal izango diote, IZENPEren helburu sozialeko jardueretako bat bada.

IZENPERi egiten zaizkiokeen enkarguak izaera instrumentala izango dute eta ez-kontratuzkoa, eta, ondorio guztietarako, barneko eta mendeko izaera izango dute; enkarguen bidez antolatuko dira, enkarguaren xedea, epeak eta gainerako baldintzak zehaztuta; nahitaez egin beharko dira; enkargua egiten duen organoak finkatutako tarifen bidez ordainduko dira; eta enkargua ematen duen organoak ahalmena izango du enkargua egiteko beharrezkoak diren jarraibideak emateko.

Bestalde egiaztatu da IZENPEk badituela giza baliabide eta baliabide materiak egokiak Udal honek egin diezazkiokeen enkarguak egiteko, betiere, bere helburu sozialarekin bat etorritik.

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko uztailaren 14an egindako ohiko bileran, IZENPE Debako Udalaren eta bere sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen:

Lehenena.- Adostasuna ematea botere esleitzailatzat hartzeko “Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA” (IZENPE) sozietatearen estatutuetako 1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- IZENPE Udal honen eta bere sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzea, baita horiek eman diezazkioketen enkarguen hartzailetzat ere.

5.- Onartzea, hala badagokio, Deba gune tentsionatua izendatzeko prozedurari hasiera ematea.

Alkateak azaldu zuen Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2025eko apirilean argitara emandako txostenaren arabera, Debako udalerrriak tentsio gune izateko bete beharreko irizpidetako bat betetzen duela, han zuzen, 1. irizpidea, alokairuaren prezioak KPI + 3 puntu baino igoera izana, azken 5 urteetan.

Lurraldetasun Batzordeak, 2025eko uztailaren 16an egindako ohiko bileran, gaia aztertu zuen, eta Deba gune tentsionatua izendatzeko prozedurari hasiera ematearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen:

Lehenena.- Debako udalerrria bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko prozedurari hasiera ematea.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailarekin harremanetan jarri eta prozedurari hasiera emateko behar diren pausoak ematea, eta horretarako:

- Datu objektiboetan oinarrituta eskaera arrazoituz memoria bat egitea.
- Etxebizitzaren inguruko diagnostikoa egitea.
- Hiru urtetarako ekintza plana diseinatzea eta onartzea, etxebizitzaren arloan dauden gabeziei erantzuteko, egutegi jakin batekin.
- Etxebizitza sailak eska ditzakeen dokumentu gehigarri guztien eskaerari erantzuna ematea.

6.- Onartzea, hala badagokio, euskara ikasteko dirulaguntzen oinarrien aldaketa.

Alkateak gaia aurkeztu zuen.

Herritartasun Batzordeak, 2025eko uztailaren 15an egindako ohiko bileran aho batez, euskara ikasteko dirulaguntzen oinarrien aldaketa onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, onartu zituen euskara ikasteko dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa.

Oinarri horien testu eguneratua akta honen I. eranskinean jasotzen da.

7.- Onartzea, hala badagokio, euskara ikasteko bekak emateko oinarri arautzaileak.

Alkateak gaia aurkeztu zuen.

Herritartasun Batzordeak, 2025eko uztailaren 15an egindako ohiko bileran, aho batez, euskara ikasteko bekak emateko oinarri arautzaileen onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, onartu zituen euskara ikasteko bekak emateko oinarri arautzaileak.

Oinarri arautzailea horien testua akta honen II. eranskinean jasotzen da.

8.- Onartzea, hala badagokio, margo lehiaketako oinarrien aldaketa.

Pleno aretoan ez ohiko ekitaldiak eta, bereziki, erakusketak egiteko aukera bertan behera gelditu denez, pintura lehiaketaren antolaketan aldaketak egitea beharrezkoa da. Hori dela eta, aurtengo edizioan, lehiaketako jarduera guztiak Aguirre jauregiko erakusketa gelan egingo dira: izen-ematea, lanen entrega, sari banaketa eta erakusketa bertan izango dira.

Bestalde, lehiaketaren 4. oinarria ere eguneratu behar da. Izan ere, aurreko urteetan gaia eta teknika libreak zirela jasotzen baitzuen, baina iazko edizioan gertatutakoaren harira, gaia zehaztea komeni da. Horrela, aurrerantzean, teknika librea izango da, baina lanek nahitaez Debarekin zerikusia izan beharko dute.

Herritartasun Batzordeak, 2025eko uztailaren 15an egindako ohiko bileran, aho batez, margo lehiaketako bi aldaketa horiek onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, onartu zituen margo lehiaketako oinarrien aldaketak.

Oinarri horien testu eguneratua akta honen I. eranskinean jasotzen da.



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

9.- Onartzea, hala badagokio, EAJ/PNV taldeak aurkeztutako Palestinari buruzko mozioa.

Alkateak azaldu zuen gai hau lantzeko erabiliko zen prozedura, horren arabera, lehenik EAJ/PNV taldeko zinegotzi batek mozioa irakurriko zuela, ondoren beste taldeek izango luketela euren iritzia azaltzeko aukera, eta bozketa aurretik, Deba-Palestina elkarteko kide batek hartuko zuela hitza, 5 minutuz, euren iritzia azaltzeko.

Azaldutakoari jarraituz, Asier Urain, EAJ/PNV taldeko kideak, mozioa irakurri zuen:

«Israelek Gazan egindako operazio militarretan, Hamasek 2023ko urriaren 7an egindako eraso izugarrien ondoren hasi zirenak, eraso horiek gerra krimenak dira, eta erakundeak 1250 pertsona baino gehiago hil eta 250 baino gehiago bahitu zituen. Operazio horietan, Israelek ekintza ugari jarri ditu abian, palestinarrei kalte konponezina eragiteko.

Urtebete baino gehiago da mundua Gazako Zerrenda okupatuaren heriotza eta suntsipen maila pentsaezinen lekuko dela. Israelek Gazako palestinarren aurka egindako eraso bortitzak dozenaka mila pertsona hil ditu, familia osoak desagerraraziz, bizitegi-auzoak suntsitu ditu, azpiegitura kritikoak suntsitu ditu eta 1,9 milioi palestinar lekualdatu (Gazako Zerrendako biztanleriaren % 90 baino gehiago), aurrekaririk gabeko hondamendi humanitarioa eraginez. Are gehiago larriagotuz, NBEk ohartarazi du 14.000 umek desnutrizio larria dutela Zerrendan.

Mundua begira dagoen bitartean, Israelek alde bakarretik hautsi du su-etena, eta eraso gupidagabeak egiten jarraitzen du zigorgabetasunez, palestinarren bizitzak etengabe galduz, Gazako hondamendi humanitarioak okerrera egiten jarraitzen duen bitartean.

Deba Udalak, gizarteak duela urtebetetik oihuka eskatzen duena eskatzen du:

- 1. Hamasek 2023ko urriaren 7an egindako eraso bortitza gaitzestea.*
- 2. Gazako biztanleria zibil palestinarraren aurka egindako genozidioa irmo eta ñabardurarik gabe gaitzestea.*
- 3. Berehalako su-eten iraunkorra, indar militarrek lurralde okupatuetatik erretiratzea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa, nazioarteko ebazpenak eta giza eskubideak erabat errespetatzea eskatzea.*
- 4. Gertakarien larritasunaren aurrean jarduteko eta Israelekin duen akordio komertzial eta politikoa berrikusteko eskatzen diogu EBri.*
- 5. Gazako Zerrendan laguntza humanitarioa sartzeko bide seguruak berma ditzatela, lurralde horren kontrako legez kanpoko blokeoa kentzea eta Palestinako Lurralde Okupatuaren okupazioa amaitzea, 2024ko uztailleko Nazioarteko Justizia*

Gortearen iritzi aholku emaila praktikan jarritz, zeinek Israelek Gaza eta Zisjordania ekialdeko (Jerusalem barne), legez kanpokotzat jotzen zituen.

- 6. Europar Batasunak bere eragina eta boterea giza eskubideen, justiziaren eta kontuak ematearen alde erabiltzea. Zehazki, Genevako Hitzarmenak errespetatzen direla bermatzea. Hitzarmen horiek, gutxienez, eskatzen dute estatu guztiek eten ditzatela gatazkan parte hartzen duten aldeei egiten zaizkien arma transferentziak, nazioarteko zuzenbidea urratzeagatik kontuak ematea bermatzeko lankidetzan aritzea eta nazioarteko erakundeei eta mekanismoei laguntzea eskatzen dute, Nazioarteko Zigor Gorteak eta NBERen Ikerketa Batzordeak Palestinako Lurralde Okupatuari buruz egindako ikerketak barne.*
- 7. Europar Batasunak Gazan presentzia militar iraunkorra ezartzeko, mugak aldatzeko edo palestinarrak Gaza edo Zisjordanian kanporatzeko edozein ahaleginen aurka agertzea, eta nahitaezko lekualdaketa hori Genevako Laugarren Hitzarmenaren urraketa larria dela eta gerrako krimena dela onartzea.*
- 8. Debako udaletik, Ekialde Hurbileko Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren (UNRWA) premiazko eta beharrezko lana babesten dugu, larrialdi humanitarioko arrazoietan oinarrituta.*
- 9. Debako herriak elkartasun aktiboa adieraztea Palestinako herriarekiko eta munduko gerren eta indarkeria militaristaren biktima guztiekiko.*
- 10. Akordio honen berri ematea Gobernuak Presidentetzari, Kanpo Arazoetako Ministerioari, Europako Parlamentuari, Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziari (UNRWA) eta gizarte eta giza eskubideen aldeko erakundeei.»*

Ondoren, Isidro Aristi, Orain Deba taldeko kideak, bere erantzuna irakurri zuen:

«Gure taldeak Israelen Palestinar herriaren gertatzen ari den genozidioa gaitzesten du, populazio osoa lekuz aldatu

Osoko Bilkura honetan Deba Palestina elkarteak aurkeztutako mozio bat onartu zen talde politiko guztien babesarekin, eta bertan, Udalak hainbat egintza egiteko konpromisoa hartu genuen. Orain beste mozio bat aurkeztu du alderdi politiko batek, eta abstenitzea erabaki dugu gainerako alderdiekin adostu ez delako.»

Gilen Garcia, EH Bildu taldeko kideak, azaldu zuen irakurketa politikotan ez sartzea erabaki zutela, nabarmena zelako gertatzen ari dena, eta Osoko Bilkura honetatik egoera aldatzeko aukera gutxi zeudela. Oso ondo ekarria izan zela Deba-Palestina ekimenak aurkeztu zuen mozioa, aho batez onartu zena, eta, zentzu horretan, akordioetara heltze aldera, euren eskaera zela mozio hau puntuka bozkatu ahal izatea.

Alkateak erantzun zion Antolakuntza batzordearen azken bileran beste alderdiei aurkeztu zieten mozioa horren berri izan zezaten. Bilera horretan ere mozioa puntuka bozkatzeko eskaera egin zutela, eta orduan erantzun zena berretsi nahi zuela orain: mozioa bere osotasunean aurkeztu zutela, eta bere osotasunean bozkatzeko proposamena egingo zutela.

Gilen Garciak gehitu zuen, kontuan izanda mozioan aipatzen ziren hainbat puntuekin ados ez zeudela, uste zutelako errealitatea desitxuratzen zuela, fokoa behar ez zen hainbat puntutan jarritz, Udaltzari zegokiena zela ahal den neurrian adostasuna zuten puntuak nabarmentzea,



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

are gehiago kasu honetan non gehiengo batek hori partekatzea faltan bota zuenean. Ulertzen zuela erabakia mozioa aurkeztu zuen alderdiari zegokiola, eta beste aukerarik ez bazegoen, euren ere abstentziora joko zutela.

Eta azkenik, Ana Zabaleta, Deba-Palestina ekimeneko kideak, hitz egiteko aukera emana eskertu ondoren, adierazpen hau irakurri zuen:

«Deba-Palestina taldekideok EAJ/PNVk aurkeztutako mozioaren inguruan hainbat baieztapen eta eskaerarekin ez gaudela ados adierazi nahi dugu.

Mozioan, 2023 urriaren 7an, Hamasek egindako eraso aipatzen da nahikoa arrazoi izango balitz bezala ondoren Israel Palestinaren aurka gauzatzen ari den genozidioa justifikatzeko.

Halaber, mozioaren eskaeren artean 1. puntuak Hamasen eraso bortitza gaitzestea eskatzen du.

Egia bada Hamasek bortizki eraso zuela Israel, eraso hori besterik gabe, testuingururik gabe, gaitzestea ezin dugu onartu ez delako bidezkoa, ez delako justua. Izan ere testuingurua ulertu behar da, historia ezagutu behar da Hamasek eta erresistentzia palestinarrak egindakoa ez delako ezerezetik sortu.

Dakigunez, Israel estatu koloniala da, 1948an hasi zuen kolonizazio prozesuak oraindik jarraitzen du. Israelgo estatuaren helburua, arrazoi estrategikoak eta ekonomikoak direla medio, AEBtako eta Europako babesarekin Palestina bere osotasunean okupatzea da. Ahalegin horretan Estatu sionista eta kolonialak 2002. urtetik hona Gazan gupidarik gabeko zapalketa burutu du, Gazako zerrenda munduko kartzelarik handiena bilakatuz: harresiak, blokeoa, mugako postuak, apartheid-a, lekualdatzeak etab luze bat inposatuz. Testuinguru horretan ulertu behar da erresistentzia palestinarrak urriaren 7an egindakoa, ulertu behar da herri bezala jasaten ari denaren zapalkuntzaren ondorioa izan zela; zapalkuntza horren aurrean defentsa izan zela.

Zailagoa, ordea, ulertzea 23tik hona Israelen erantzuna: sarraskia, garbiketa etnikoa, genozidioa. Gazako zerrenda odolusten ari da, horregatik gure eginbehar etiko eta morala genozidioaren arrazoiak gogoratu eta berau kondenatzea da.

Arrazoi hauen ostean, gure eskaera, mozioko 1. puntua kentzea da, arestian esan dugun moduan urte luzeetako historia ez delako kontuan hartzen.

Mozioaren hurrengo puntuekin ados bagaude ere, batzuei zertxobait gehituko genieke:

3. puntua: mozioak su etenaz eta aipatzen dituen neurriez gain, ezinbestekotzat jotzen dugu Israelgo estatuaren eredu aldaketa, erregimen kolonialaren desagerpena eta kolonizazioaren etena eskatzea.

4. puntua: Akordio komertzial eta politikoak berrikusteaz gain, Israelekin ditugun

harremanak erabat etetea.

8. puntua: ados gaude UNRWako lan humanitarioa babestearekin. Horregatik eskatzen dugu Udalak Larrialdietarako duen diru kopuru bat erakunde horretara bideratzea.

9. puntua: Elkartasun aktiboarekin ere ados gaude, hortaz, zergatik egiten duzue uko Udaletxeko balkoian palestinar bandera ipintzeari?

10. puntua: Akordioaren berri ematea gobernu eta hainbat erakundeei ere ondo iruditzen zaigu, baina gehitu nahiko genuke Euskal Autonomia Erkidegora eta bere lehendakaritzara ere bidali beharko litzatekeela.»

Alkateak adierazi zuen bozketa aurretik puntu batzuei erantzuna eman nahi zuela. Azaldu zuen bezala, mozioa bere osotasunean bozkatuko zela, hortaz, ez zutela punturik kenduko. Ez zeudela ados egindako irakurketarekin, eurek ez zutela justifikatzen Israelek egiten ari zena, hori oso garbi gelditzen zela mozioaren zehar, baina Hamasek egiten duena ere gaitzestea tokatzen zela uste zutela, eta hala egiten zutela. Udalak larrialdietarako duen diru kopuru bat UNRWara bideratzea zegokionez, azaldu zuen Deba-Palestina ekimenak eskaera bat aurkeztu zuela zentzu horretan, eta asmoa zela Gizarte Politikako batzordeak egingo zuen hurrengo bileran gaia aztertzea. Eta Palestinako bandera Udaletxeko balkoian jartzeri buruz, eurek ere ados zeudela, eta proposatzen zutela mozioa onartu ondoren, Palestinako bandera Udaletxeko balkoian jartzea, hilaren bukaera arte.

Ana Zabaletak azaldu zuen eurek ez dutela Hamas babesteko asmorik, baina ez zaiela zuzena iruditzen kontestua aintzat hartu gabe gaitzestea.

Gilen Garciak azaldu zuen, elkarlanaren mezuarekin jarraituz, Antolakuntza batzordearen azken bileran, mozioa aurkeztu zutenean, bere lehen galdera izan zela ea eragileren batekin kontrastatu ote zuten. Euren ustez, herritarrekin, eragileekin, elkarlana balio izan zitekeela, izan ari zen eztabaia lehenago lantzeko aukera, aurretik aurkeztu zen mozioarekin gertatu zen bezala. Orain mozioa modu itxian aurkeztu zela, eta ulertzen zutela mozio bat aurkezten denean helburua izan behar zela ahalik eta babesik handiena lortzea, eta, ildo horretatik, gogorarazi nahi zuela, eurek gobernuan egon zirenean behin ere ez zutela uko egin mozio bat puntuka bozkatzeari. Akordioetara heltzea bideratu behar dela, eta hori izan behar dela Udalbatzaren lana. Begi onez ikusten zutela Palestinako bandera Udaletxeko balkoian jartzea, eta beste puntu batzuetan ados ez badaude ere, herriari begira adieraztea Debako Udala Palestinaren alde dagoela eta genozidioa gaitzesten duela.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko 6 botoekin eta 7 abstentzioekin, onartu zuen EAJ/PNV taldeak aurkeztutako Palestinari buruzko mozioa.

10.- Eskari eta galderak.

Gilen Garciak azaldu zuen bi galdera zituela gai berari buruz. Jaien harira, aurreko agintaldian, EAJ taldeak eskatuta, jaien egitaraua Plenotik pasatzen zela. Iaz galdera bera eginda erantzun zutela ez zela beharrezkoa Plenotik pasatzea. Gauza bera gertatzen zela txupinazoarekin. Lehen herritarrei ematen zitzaien aukera txupinazioa nork botako zuen aukeratzeko, proposamen batzuk aurkezten ziren eta herritarrek bozkatzen zuten. Jaiak herriaren espresio nagusietako bat izanda, euren ustez ondo zegoela horrela jokatzeko. Hor ere irizpide aldaketa bat egon zela, eta galdetu zuen ea zein izan zen aipatutako bi kasuetan irizpide aldatzeko



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

arrazoia, hau da, zergatik hobetsi da alkatearen eskuan uztea bi gai horien inguruko erabakiak hartzea.

Alkateak erantzun zion, jaien aurrekontuei buruz, udal aurrekontuetan onartu zirela horretarako partidak eta, partida horietara mugatzen badira, ez zuela uste beharrezkoa zenik berriro ere eztabaidatzea. Gero zurieta aurkeztuko zutela xehetasun guztiekin, baita kanpokoren batek azalpenen bat eskatuz gero. Eta txupinazoarena, herritarrek aukeratzen zutela aurreko agintaldian, baina, horren aurretik ez zela horrela egiten. Aurreko urtean pentsatu zutela Aitzurik, bere 30. urteurrena izanik, bazeudela nahiko arrazoiak txupinazoa eurek botatzeko, eta aurten txupinazoa botako duen pertsonak ere badituela horretarako nahiko pisua.

Gilen Garciak azaldu zuen ñabardura txiki bat gehitu nahi zuela, onartzen zuela ez zekiela aurreko agintaldietan nola egiten zen, eta ez zitzaiola harritzen Alkatetzak zuzenean erabakitzea, baina, aurreko agintaldian Udalbatza osatzen zuten beste bi alderdiek ere, EAJ-k eta Debarrren Ahotsak, irmo defendatzen zutela herritarrek erabaki behar zutela txupinazoa nork bota behar zuen. Horregatik galdetzen zuela irizpidea aldatzeko arrazoiak, EH Bildu Alkatetzan zegoenean EAJ-k postura bat defenditzen zuelako, eta orain, Alkatetzan dagoenean, inori azalpenak eman gabe, era bat kontrakoa defenditzen zuelako. Irizpidea aldatzeko arrazoiak azalduta, eurek ere ados egon zintezkeela, baina inolako azalpenik eman gabe egin denez, justifikatu gabeko aldaketa zela uste zutela.

Amaitu aurretik, Alkateak gogorarazi zuen abuztuan ez zela egongo Osoko Bilkuraren bilerarik, eta hurrengo ohiko bilera irailaren 25ean, osteguna, arratsaldeko zazpitan, izango zela, eta oportretan eta jaietan ondo pasatzea opa zien guztiei.

Besterik ez zegoenez, 19:30etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria





2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/06
EGUNA: 2025/07/23

I. ERANSKINA

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoak, herritarren eskubide gisa aitortzen du euskara jakitea (5. artikulua), eta herri-aginteei ezartzen die eskubide hori ziurtatzeko neurriak hartu beharra (6. artikulua).

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei izendatzen die, eskumen propio gisa, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz (7. artikulua).

Bide beretik, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zera dio: hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakarrela hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa (8.2 artikulua).

Debako Udala UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da, eta helburu du neurri aurrerakoiak hartzea euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko.

Debako Udalak oinarriak, irizpideak eta prozedura arautu nahi ditu, euskara ikasten ari diren herritarrei lehiaketa bidez dirulaguntzak emateko. Helburua da herritarrek euskaraz alfabetatzeko eta euskara ikasteko duten eskubidea bermatzea, eta, horretarako, ikaskuntza- gastuak finantzatzea.

Oinarri hauetan aurreikusi ez denari dagokionez, honako hauek aplikatuko dira tokiko eta euskarari buruzko araudia, eta dirulaguntzen araudi orokorra.

Debako Udalak, beraz, erabaki du euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile hauek onartzea.

1. Xedea.

Dirulaguntza hauen helburua da Deban erroldatutako herritarrek bultzatzea euskara ikastaroetan parte hartzera; horretarako, Debako Udalak dirulaguntzak emango dizkie euskaltegi edo barnetegi batean euskara ikasten ari diren herritarrei.

Diruz lagunduko dira HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak onartutako zentroetan egindako ikastaro presentzialen, autoikaskuntzakoen eta mistoen gastuak, oinarri

hauetan zehaztutako baldintzen eta gehieneko kopuruen arabera. Dirulaguntza horiek ikasturte amaieran emango dira.

2. Onuradunak.

2.1. Baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

- 16 urte edo gehiago izatea.
- Deban errolatuta egotea.
- HABEk onetsitako zentro batean matrikulatuta egotea.
- Gutxienez % 75eko asistentzia-maila izatea. Asistentzia zenbatzean, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:
 - o Ikasle batek lanagatik ezin badu euskaltegiara joan ordutegi horretan (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - o Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - o Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- Irakaslearen aprobetxamendu-txostena aldekoa izatea.
- Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez izatea.
- Aurreko bi urteetan ikasmila berberean matrikulatzeagatik dirulaguntza jaso ez izana.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitortpen erantzulea betetzea eskaera orrian.
- HABEren ohiko euskalduntze alfabetatzeko dirulaguntza edo C1 maila lortzeko 16-18 urte bitarteko gaztetxoentzat ateratako dirulaguntza jasotzeko baldintzak betez gero, HABEri dirulaguntza eskatu izana.

3. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoekin, xedea berbera izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Horrelakorik gertatuz gero, murriztu egingo da oinarri hauen kargura ematekoa zen dirulaguntzaren zenbatekoa, muga ez gainditzeko.

3. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ez dira estatu laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak ez baitira jarduera ekonomikoak egiten dituzten enpresak; ondorioz, laguntza horiek ez dira sartzen tratatu horren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-prozeduran.

4. Eskaera aurkezteko behar den dokumentazioa.

Dirulaguntzak eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza eskatzeko eskabidea, eredu normalizatuaren arabera behar bezala beteta.
- Euskaltegiaren ziurtagiria, ikasturteari buruzko informazio honekin:
 - o Eskatzailea zein mailatan hasi zen eta zein maila egiaztatu duen.
 - o Asistentzia zenbatekoa izan den, ehunekotan.
 - o Ikasleak zer zenbateko ordaindu duen ikastaroagatik.
 - o Ikaslearen aprobetxamendua nolakoa izan den.



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

- Kontu korrontearen titulartasun-ziurtagiria.
- HABEtik diru laguntza jasoz gero, laguntza horren zenbatekoa egiaztatzen duen agiria.

5. Eskaera aurkezteko modua eta epea.

1. Udal erregistroa erabiliz aurkeztu ahalko da eskaera, elektronikoki edo presentzialki.
2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Udalaren egoitza elektronikoan eta udal harrera bulegotan.
3. Urteko deialdian zehaztuko da eskaerak aurkezteko epea.
4. Eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jadanik Udalaren esku dauden dokumentuak, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
5. Dirulaguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak aitortuko du betetzen dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak, eta osotasunean onartzen dituela oinarri hauek.

6. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

1. Eskaeran edo horrekin batera doan dokumentazioan akatsen bat badago edo zerbait falta bada, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epe horretan akatsak zuzendu ezean, uste izango da eskatzaileak uko egin diola, eta artxibatu egingo da, beste tramiterik egin gabe.
2. Udalak beharrezko irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

7. Dirulaguntzak emateko prozedura.

1. Konkurrentzia bidez emango dira dirulaguntzak.
2. Ofizioz hasiko da laguntzak emateko prozedura, deialdi publiko baten bidez. Deialdia organo eskudunak onartuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionelean argitaratuko da.
3. Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua betez, emandako dirulaguntzak argitaratu egin beharko dira Debako Udalaren Gardentasun Atarian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionelean, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.
4. Deialdia iragarki-taula digitalean eta Udalaren webgunean argitaratuko da. Nolanahi ere, Udalak oinarri horien eta gainerako argitalpenen berri emango du egokitze jotzen dituen bitartekoak erabiliz.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa.

1. Honako irizpide hauek erabiliko dira dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuari erreparatuz:
 - A1, A2, B1, B2 mailak: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 900 euroko gehieneko

mugarekin.

- C1 maila: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 500 euroko gehieneko mugarekin.
- C2 maila: matrikularen % 75eko dirulaguntza, 400 euroko gehieneko mugarekin.

2. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan ikastaroaren edo jardueraren kostua baino handiagoa.

3. HABEren ohiko euskalduntze alfabetatzeko dirulaguntza edo C1 maila lortzeko 16-18 urte bitarteko gaztetxoentzat ateratako dirulaguntza jasoz gero, maila bakoitzean zehaztutako ehunekora iristeko diru laguntza kalkulatu eta emango du Udalak.

9. *Prozedura bideratzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak.*

1. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa egitea Euskara Zerbitzuari dagokio.

2. Euskara Zerbitzuak aztertuko ditu eskabideak, eta haiek baloratzeko txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu. Proposamen horretan zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza, eta organo eskudunari helaraziko dio, onar dezan.

3. Alkatetzak izango du oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena.

4. Hiru hilabetekoa izango da dagokion ebazpena emateko, argitaratzeko edo jakinarazteko gehieneko epea. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epe hori, salbu eta deialdiak ondorioak atzeratzen baditu.

5. Epe hori igaro eta ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

10. *Onuradunen betebeharrak.*

1. Honako betebeharrak orokor hauek dituzte dirulaguntzen onuradunek:

- Dirulaguntzaren xede den jarduera bete-betean burutzea.
- Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.
- Oinarri hauetan zehaztutako eran aurkeztea justifikazioak.
- Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketari men egitea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapen eta -kontrola beste edozein jarduketari ere, eta eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- Dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztea, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide lortuz gero. Jakinarazpen hori laguntza jasotzearen berri izan orduko egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

2. Deialdiak ezar ditzake beste betebeharrak espezifiko batzuk.

11. *Dirulaguntzen ordainketa.*

Dirulaguntzak Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko dira, behin HABEren diru laguntza guztiak argitaratuta daudenean; alegia, ordainketak deialdia egiten den urtearen amaieran egingo dira. Ordainketa behin bakarrik egingo da, interesdunak emandako kontu korronte banku-transferentzia eginez. Kontu korronte hori hirugarrenen fitxan jasoko da.

12. *Dirulaguntzak itzultzea.*

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatzea.



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

2. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluan ezarritako xedapenek arautuko dute dirulaguntzak itzultzeko prozedura.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako irizpide hauek zehazten dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

- ☐ Baldintzak faltsutuz edo ezkutatuz lortzea: %100
- ☐ Bertaratzeko edo ordaintzeko betebeharra ez betetzea: %100

13. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak arautuko dituzte, oinarri hauetan xedatutakoaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduak, eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako arauak.

14. Indarrean sartzea.

Oinarri hauek indarrean sartuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/06
EGUNA: 2025/07/23

II. ERANSKINA

EUSKARA IKASTEKO BEKAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, herritarren eskubide gisa aitortzen du euskara jakitea (5. artikulua), eta herri-aginteei ezartzen die eskubide hori ziurtatzeko neurriak hartu beharra (6. artikulua).

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei izendatzen die, eskumen propio gisa, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz (7. artikulua).

Bide beretik, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zera dio: hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakarrela hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa (8.2 artikulua).

Debako Udala UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da, eta helburu du neurri aurrerakoiak hartzea euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko.

Debako Udalak oinarriak, irizpideak eta prozedura arautu nahi ditu, euskara ikasi nahi duten eta zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrei bekak emateko. Helburua da herritarrek euskaraz alfabetatzeko eta euskara ikasteko duten eskubidea bermatzea, horretarako bekak emanez.

Debako Udalak, beraz, erabaki du euskara ikasteko bekak emateko oinarri arautzaile hauek onartzea.

1. Xedea.

Beka honen helburua da Deban erroldatutako herritarrak bultzatzea euskara ikastaroetan parte hartzera, horretarako bekak emanez.

Beka jasotzeko, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak onartutako zentro batean matrikula egin beharko dute herritarrak, ikastaro presentzial, autoikaskuntzako edo misto batean, eta oinarri hauetan zehaztutako baldintzak bete.

2. Onuradunak.

2.1. Baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute beka:

- 16 urte edo gehiago izatea.
- Deban erroldatuta egotea.
- Beka jasotzeko inolako debekurik ez izatea.

- Aurretik ikasmaita berberean matrikulatzeagatik dirulaguntza jaso ez izana.

Horretarako, honako egoeraren batean egon beharko du eskatzaileak:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzea.
- Errenta aitorpena egitetik salbuetsita egotea.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuen txosten batek eskatzailearen egoera zaurgarria baieztatzea.

3. Bateragarritasuna.

1. Oinarri hauen xede diren bekak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek eman dezaketen edozein laguntzarekin, xedea berbera izanda ere.
2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.
3. Oinarri hauetan araututako bekak ez dira estatu laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak ez baitira jarduera ekonomikoak egiten dituzten enpresak; ondorioz, laguntza horiek ez dira sartzen tratatu horren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-prozeduran.

4. Eskaera aurkezteko behar den dokumentazioa.

Bekak eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Beka eskatzeko eskabidea, eredu normalizatuaren arabera behar bezala beteta.
- 2. oinarrian jasotako egoeraren bat ziurtatzen duen agiria.
- Euskaltegian 60 orduko hastapen ikastaroan matrikulatuta egotearen ziurtagiria, prezioa zehaztuta.
- Kontu korrontearen titulartasun-ziurtagiria.

5. Eskaera aurkezteko modua eta epea.

1. Udal erregistroa erabiliz aurkeztu ahalko da eskaera, elektronikoki edo presentzialki.
2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Udalaren egoitza elektronikoan eta udal harrera bulegotan.
3. Urteko deialdian zehaztuko da eskaerak aurkezteko epea.
4. Eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jadanik Udalaren esku dauden dokumentuak, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
5. Eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak aitortuko du betetzen dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak, eta osotasunean onartzen dituela oinarri hauek.

6. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

1. Eskaeran edo horrekin batera doan dokumentazioan akatsen bat badago edo zerbait falta bada, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epe horretan akatsak zuzendu ezean, uste izango da eskatzaileak uko egin diola, eta artxibatu egingo da, beste tramiterik egin gabe.
2. Udalak beharrezko irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

7. Bekak emateko prozedura.

1. Konkurrentzia bidez emango dira bekak.
2. Ofizioz hasiko da bekak emateko prozedura, deialdi publiko baten bidez. Deialdia organo eskudunak onartuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratuko da.



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

3. Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua betez, emandako dirulaguntzak argitaratu egin beharko dira Debako Udalaren Gardentasun Atarian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.

4. Deialdia iragarki-taula digitalean eta Udalaren webgunean argitaratuko da. Nolanahi ere, Udalak oinarri horien eta gainerako argitalpenen berri emango du egokitzen jotzen dituen bitartekoak erabiliz.

8. Beken zenbatekoa.

1. Honako irizpide hau aplikatuko da:

- 60 orduko hastapen ikastaroa: matrikularen % 100, ikastaroa hasterako..

2. Beken zenbatekoa ezingo da inoiz izan ikastaroaren edo jardueraren kostua baino handiagoa.

9. Prozedura bideratzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak.

1. Beka emateko prozeduraren instrukzioa egitea Euskara Zerbitzuari dagokio.

2. Euskara Zerbitzuak aztertuko ditu eskabideak, eta haiek baloratzeko txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu. Proposamen horretan zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza, eta organo eskudunari helaraziko dio, onar dezan.

3. Alkatetzak izango du oinarri hauetan jasotako bekak ematea ebazteko eskumena.

4. Hiru hilabetekoa izango da dagokion ebazpena emateko, argitaratzeko edo jakinarazteko gehieneko epea. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epe hori, salbu eta deialdiak ondorioak atzeratzen baditu.

5. Epe hori igaro eta ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

10. Onuradunen betebeharrak.

1. Honako betebeharrak orokor hauek dituzte beken onuradunek:

- Izena emandako ikastaroan parte hartzea.
- Irakaslearen aprobetxamendu-txostena aldekoa izatea.
- % 75etik gorako asistentzia-egiazztatzea. Asistentzia zenbatzean, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:
 - o Ikasle batek lanagatik ezin badu euskaltegira joan ordutegi horretan (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - o Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - o Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- Beka zertarako jaso den, horretarako erabiltzea.
- Oinarri hauetan zehaztutako eran aurkeztea justifikazioak.
- Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta kontrol-organoko eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapen eta -kontrola beste edozein jarduketari ere, eta eskatzen zaion informazio guztia ematea.

2. Deialdiak ezar ditzake beste betebeharrak espezifiko batzuk.

11. Bekaren ordainketa.

Beka ematea Alkatetzaren Dekretu bidez ebatzi ondoren, era honetan egingo da ordainketa: zenbatekoaren % 100, erabakia hartu eta hamabost eguneko epean. Ordainketa guztiak interesdunak emandako kontu-korrontera banku-transferentzia eginez pagatuko dira. Kontu korronte hori hirugarrenen fitxan jasoko da.

12. Bekak itzultzea.

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta laguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatzea.

2. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluaren ezarritako xedapenak arautuko dute laguntzak itzultzeko prozedura.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako irizpide hauek zehazten dira laguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

- Baldintzak faltsutuz edo ezkutatuz lortzea: %100
- %75eko asistentzia (salbuespenak alde batera lagata) ez betetzea: %100
- Irakaslearen aldeko aprobeitxamendu-txostenik ez aurkeztea: %100

13. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak arautuko dituzte, oinarri hauetan xedatutakoaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduak, eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako arauak.

14. Indarrean sartzea.

Oinarri hauek indarrean sartuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.



2025SPLE0006
6.bilera: OHIKOA 2025/07/23

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/06
EGUNA: 2025/07/23

III. ERANSKINA

MARGO LEHIAKETAKO OINARRIAK

- 1- Margolari guztientzako lehiaketa da; baldintza bakarra 16 urte izatea da.
- 2- Goizeko 08:00etatik 10:30ak bitartean margo oihalei zigilua jarriko zaie Agirre jauregiko erakusketa gelan.
- 3- Egindako lanak eguerdiko 13:30 baino lehen entregatu beharko dira Agirre jauregiko erakusketa gelan.
- 4- Lanak Debako inguruetaoak izango dira eta ageriko tokietan betetakoa; gaia eta teknika li-break izanik.
- 5- Sariketaren erabakia antolatzaileek erabakitako epaimahaiak emango du, eta apelaezina izango da. Sari banaketa 14:30ean egingo da Agirre jauregiko erakusketa gelan.
- 6- Sariketara aurkeztutako lanak sariketaren hurrengo astean zehar Agirre jauregiko erakusketa gelan egongo dira ikusgai.
- 7- Margolanak turismo bulegoan jaso beharko dira irailaren 30a baino lehen.
- 8- SARIAK honako hauek izango dira:

1goa	800 euro
2.a	500 euro
3.a	350 euro
Herriko saritu gabeko lehen klasifikatua	250 euro

CARDENAS FUNDAZIOAK ESKAINITAKO SARI BEREZIAK:

4.a	200 euro
“María Esperanza Chávarri” akuarela saria	300 euro
(Lehendik saritu gabeko akuarela onenari)	
“Marqués de Prado Ameno” sari berezia	150 euro
(Teknika librean, 21 urtetik behera izan eta aurretik saririk jaso ez dutenentzat)	
“Blanca Vilallonga” saria	300 euro
(“Itsasoa” gaitzat eduki eta lehendik saritu gabeko lanik onenari)	

- 9- Saritutako lanen artetik lehen saria eta herriko saritua Debako Udalaren jabetzan geldituko dira. “María Esperanza Chávarri” eta “Marqués de Prado Ameno” sari bereziak Cardenas Fundazioaren jabetzan geldituko dira, eta fundazioak 4. saria eta “Blanca Vilallonga” saria eros-teko eskubidea izango du. Kasu horietan, fundazioak egileak jarritako prezioa eta sariaren arteko aldea ordainduko du.
- 10 Antolatzaileek arretaz zainduko dituzte margolanak; hala ere, nahigabe okerrrik gertatuko balitz, antolakuntzak ez luke inolako erantzukizunik izango.